

Antzerki**Forum** 2008-09 egitasmoa

eskolan balio etikoak bultzatzeko

Sarrera

Antzerkiaren bidez, indarkeria eta jarrera arrazistak prebenitzeko Irlandan arrakasta izaten ari zen esperientzia bat –Antzerki-Forum metodoan oinarritutakoa– ezagutzeko aukera izan zuen Baketik-ek 2006an zehar. Ekimenak berak duen interesaren eta gizartean edo euskal eskola komunitatean dagoen kezkaren aurrean, esku-hartze prebentibo honetako bultzatzaileekin harremanetan, urtarilean eta otsailean zehar Arantzazun esperientzia pilotu bat antolatzea erabaki zuen Baketik-ek euskal ikastetxeei zuzenduta.

Era horretan, 2007ko urtarrilaren 22a eta martxoaren 9a bitartean, Baketik-ek, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamenduarekin batera, eskolan indarkeria eta jarrera arrazistak prebenitzeko antzerki sozial bidezko esperientzia pilotu bat eraman du aurrera, non 30 hezkuntza zentrotako 1.300 ikaslek parte hartu zuten.

Hau kontuan hartuta eta 2007-08 ikasturteari begira, Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailen laguntzarekin, Antzerki-Forumazabaltzeko egitasmoa prestatu zen. Honela, lehengo ikasturtean zehar 85 saio egin ziren Arantzazun non beste hainbat ikastetxek eta 8-12 urte bitarteko 4.000 ikasle inguruk parte hartu zuten. Horrekin batera, 6 saio eskaini ziren Kultur Etxeetan.

Egindako ebaluazioan bai haurrak, bai lagundu dieten irakasleak, aktoreak eta taldeko zuzendaria, eta baita Baketik eta jardunaldietara etorri ahal izan diren pertsonak bat datoz honakoan: antzerki partehartzailearen formula hau zuzena eta eraginkorra da eskolan arrazakeriaren eta indarkeriaren prebentzioan laguntzeko. Bi ezaugarri garrantzitsu ditu:

- helduok haurrei zuzentzen diegun diskurtso, teoria edo gomendioaren aurrean, ekimen honek lengoaia kreatibo, dibertigarri eta inplikatzaila ekartzen du beraiekiko komunikazio bide bezala, hau askoz didaktikoagoa eta pedagogikoagoa izanik;

- helduok edo irakasleok arrazismoa edo eskola jazarpena bezalako gaietaz hitz egitean haurrak entzumen pasiboko posizioan jarri beharrean, Antzerki-Forumak ikusle izateaz gain, aktore eta zuzendari direneko esperientzia bat bizitzeko aukera ematen die. Bidezkoa ez den errealitate bat aldatzeko aukera dute fikzioan. Antzerkian eraldaketa horren subjektu izateak, bizitza errealean ere modu horretako aldaketen subjektu izaten laguntzen die.

Ekimenean inplikaturako guztien ebaluazio positiboaren ondorioz, Arantzazuko Bake Zentroak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, 2008-09 ikasturtean honi jarraipena ematea eta zabaltzea erabaki du.

1. AntzerkiForuma eskoletara aplikatuta

Antzerki-Forum metodoa Brasilen sortu zen 70eko hamarkadan nekazariak eta langileak euren eskubideak aldarrikatzeko erabili zutenean. Augusto Boal izan zen sortzailea eta Paulo Freireren pedagogiari jarraipena eman zion. Ondoren irakasleak eta ikasleak erabili zuten; eta gaur egun praktikan jartzen dute artistek, gizarte langileak, psikoterapeutek eta GKEek kale, eskola, eliza, sindikatu, antzerki, kartzela, etabarretan (www.theatreoftheoppressed.org).

Eskolan antzerki eredu hau aplikatzerakoan, lehen zatian, 25 minutu inguru irauten duen antzeppenak aukeratutako gaiarekin harremana izanik (arrazismoa eta eskola-indarkeria, harreman sexu-afektiboak, inmigrazioa eta integrazioa...) bukaera zorigaitzokoa duen istorio bat kontatzen du. Antzeppenaren ondoren, bigarren zatiari ekiten zaio. Moderatzaileak ikuslegoari galdetzen dio istorioaren zein elementu alda zitekeen amaiera positiboago batera bideratzeko. Orduan ikuslegoa istorioaren parte sentitzen hasten da. Iradokizunak, momentuan, bat-batean asmatzen dira eta azkenean ikusleak beraiek dira ikusi nahi dituzten aldaketak adierazten dituztenak, taula gainean, aktoreekin batera. Honela eurak dira kontu honetan esku hartzen hasten direnak.

Horrela, antzeppenak irauten duen bitartean, antzerki lan bera ikuspegi desberdinetatik kontatu ahal izango da, ikusleen adierazpen eta iradokizunen arabera, hauek norabide aldaketa positibo batera gonbidatuko direlako. Euren adinekin lotura duten gaiei aurre egiterakoan metodo eragin-trukatzaile eta partehartzailea erabiliko da, eta beraien adin bera zein egunero bizi dituzten harreman eta emozio berberak dauzkaten gaztetxoek kontakizunen bidez, ikusle gazteak aurkezten zaien istorioarekiko identifikatuta sentitzen dira. Esperientzia honek gazteak antzeppenarekin maila emozionalean eta baita fisikoan ere inplikatzeari lortzen du.

Errealitate entsegu hau metodoaren hirugarren zatian luzatzen da. Orduan ikuslegoa talde txikitik banatzen da ezagutzen dituzten edo eskolan aurre egin behar izaten dituzten egoera desberdinak aztertzeko asmoz. Programaren azken zatiak bizikidetzaren hitzarmena dakar, irakasle eta ikasleen informazioaren laguntzarekin. Hitzarmen hau ikasle guztiek sinatu beharko dute.

Esperientziak frogatzen du ikuslego guztiaren arreta bereganatzen duela, eskola eremuan kirkilduta edo larderrituta sentitu ahal izan zirenei edo ahulagoak izan zitezkeenei hitza emateaz gain. Larderiako jokabidea zuten gazteei ere antzerki ispilu batean euren ekintzen ondorio negatiboak ikustarazten laguntzen die era berean. Programa amaitzean haurrak euren buruarekiko seguruago sentitzea espero da, aldaketak sortzeko gai eta hauek aurrera eramateko ere bai. Irakasleak, euren aldetik, pozik joaten dira gai sakondu dutelakoan eta aldaketa horiek gelan gauzatu direlakoan.

2. AntzerkiForumaren egitasmoa 2008-09 ikasturterako

2008-09 ikasturterako Antzerki-Forumeko nobedade nagusia da, eskola-indarkeriaren eta arrazismoaren gaia soilik jorratu ordez, hiru gai desberdin landuko dituela. Aldaketa hau eta gaien aukeraketa Hezkuntza Sailarekin harremanetan egin dira. Egutegia, landu nahi diren gaien arabera, hauxe da:

- Urriaren 6tik abenduaren 5era: arrazismoaren eta eskola-indarkeriaren prebentzioa, 8 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendua.
- Urtarrilaren 12tik martxoaren 12ra: harreman sexu-afektiboak, sentimenduen adierazpena eta genero-berdintasuna, 13 eta 14 urte bitarteko ikasleei zuzendua.
- Martxoaren 23tik maiatzaren 28ra: inmigrazioa eta integrazioa, 15 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzendua.

Hau kontuan hartuta, 2007-08 ikasturtearen egitasmoaren eredua jarraituko du:

- Arantzazun egingo da astelehenetik ostegunera eskola egutegian jaiegun ez diren egunetan, 2008ko urriaren 6a eta 2009ko maiatzaren 28a bitartean, 92 saio osatu arte. Era horretan 92 taldek Arantzazuko esperientzia honetaz gozatu ahal izango dute.
- Egunero ikastetxe bateko 30 eta 50 haur inguruko talde bat etorriko da. Programaren ordutegia 10.00etatik 15.30era izango da, bazkaltzeko tarte batekin eta Arantzazura bisita gidatu labur batekin.
- Antzezlanak euskaraz antzeztuko dira. A ereduko taldeek alde aurretik antzezlanaren sinopsia jasoko dute gazteleraz eta lanaldiaren bigarren eta hirugarren zatiak, kasu hauetan, gazteleraz egingo dira.
- Partehartzaileak bazkariak soilik arduratu beharko dira, esperientzia honetan parte hartzea erabat doan baita eta joan-etorria egiteko autobusa Baketik-ek jarriko baitu. Programa amaitzean etorritako irakasleek orientazio didaktiko batzuk jasoko dituen txosten bat eskuratuko dute, Arantzazun egindako lanak eskoletan jarraipena izan dezan.
- Horrekin batera, asteburuko 9 lanaldi antolatuko dira, lurralde bakoitzeko hiru, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin batera erabakiko diren herrietako kultur etxe edo auzo etxeetan. Saio hauetarako Udalen eta ikastetxeen laguntza eskatuko da.
- Antzerki metodologia honentzako baliabide lokal, egonkor eta erabilgarri bat sortzeko asmoz, Arantzazuko saioak lurralde bakoitzeko antzerki taldeak Antzerki-Forumaren metodoan trebatzen jarraitzeko probetxatuko dira.
- Programa honen helburu orokorra da 92 ikastetxetako 5.000 hurrek eta Euskal Autonomia Erkidegoko 9 herritako beste 500 hurrek esperientzia honetan parte hartzea.

3. AntzerkiForumari buruzko datu gehiago

3.1. Autorea

Augusto Boal (Rio de Janeiro, 1931), antzerkigilea, idazlea eta Brasileko Antzerkiaren zuzendaria Antzerki-Forumaren garapenagatik ezaguna da. Hainbat lan idatzi ditu, libururik ospetsuena Teatro do Oprimido da, 25 hizkuntza baino gehiagotara itzulia. Gaur egun Paris eta Rio de Janeiroko Antzerki-Forum zentroyen zuzendaria da.

Augusto Boal-en tesia da pertsona bat esperimentu-gertaera batekin erlazionatu eta errealitate horretan aktiboki parte hartuz gero, pasiboki parte hartzen duenak baino kontzientzia zabalagoa lortuko duela. Helburua da antzerki-hizkuntza guztien esku jartzea, hau metodo pedagogiko eta ezaguera-bide nahiz errealitatea aldatzeko tresna dela erakutsiz. Nolabait, lortu nahi dena da ikuslea autore ere bihurtzea.

Augusto Boal-ek dio ikusle-autorea «bere errealitatearen antzezpen autonomoa asmatzeko eta errealitate irudikatuan bere askapena antzezteko gai bada, orduan bere bizitzara ekartzen saiatuko da fikzio horretan lortutako guztia. Modu horretan, eszena eta eszenatokia bizitzarako praktika leku izan daitezke».

3.2. Ezaugarriak

Antzerki-Forumak bizitzak aurkezten dizkigun zapalketa modu desberdinekiko –barne eta kanpokoekiko– autoliberazio prozesuak bultzatzen ditu: diskriminazioa, esplotazioa, indarkeria, botere gehiegikeria, manipulazioa, bazterketa, indarkeria psikologikoa, menpekotasuna, uniformazioa, isolamendua, pasibitatea, inkomunikazioa, emozio falta, apatia... eta beste asko. Antzerki-Forumak ikuslearen jarrera pasiboa gainditzea eta antzerki eta bizitzan autore-aktore bihurtzea ahalbidetzen du.

Antzerki Foruma da:

- **dialogikoa**, hau da, pertsonak batera eta elkarrengandik ikas dezaten berdintasunezko eta elkarrenganako trukea ahalbidetzen du;
- **emantzipatorioa**, hau da, pertsonen burujabetza ahalbidetzen du barne zein kanpoko zapalketatik askatzeko;
- **osokoa**, hau da, modu kognitibo, emozional eta korporalean nahiz barne-mailako, pertsona-arteke eta gizarte mailako esperientzia harrigarriak ahalbidetzen ditu.

Hori dela eta, **burujabetze** (empowerment) eta **autolaguntza** prozesuak sortu eta bultzatzeko tresna egokia da. Autolaguntza-burujabetzak espazioa eta denbora behar ditu, pertsonengan konfiantza, eraldatze prozesu irekietarako ausardia eta baita ibiltzean hartzen diren bide kreatiboak ere.

3.2. Ondorioak

Antzerki-Forumak zenbait bultzada eskaintzen ditu zentzu honetan:

·**Joku librea**, hau da, pertsonak osoki aktibatu eta dinamizatzen ditu jolasari esker etsipenetik, pasibotasunetik eta menperatzetik askatzeko.

·**Arte/izaera propioa**, hau da, izaera eta (bizi) esperientzia propioa hautematera, serio hartzera eta onartzera bultzatzen du, baita pentsamendu, ikuspuntu eta adierazpen desberdinak bildu eta horietaz baliatzera ere.

·**Eremu esperimental**a, hau da, babestua eta «desazeleraziotik» libre dagoen eremu bat irekitzen du, non errealitateei buruz (jokabide automatizatu, zapalketa mekanismo, botere erlazio, estrukturak, etab.) hausnarketak egin eta bere eraldaketekin esperimentatu daitekeen.

·**Pentsamendu errebeldea**, hau da, ikuspuntu eta ekintza ezohikoak eta sormenezkoak bultzatzen ditu eta aukera eta alternatiba aniztasuna sortzen du, baita inprobisazio askea ere, non «zoroa» eta «hutsalak» bere tokia duen.

·**Barre ahalmena**, hau da, derrigorrezko seriotasuna erlatibizatzen du barre kontrolaezinezekin; botere gabeko etsipena eta samintasuna barre boteretsu eta askatzailearekin kontrajartzen du eta norberaganako barrea bultzatzen du neurriz-gaineko autoexijentziatik babesteko eta perfekzio presioari aurre egiteko.

·**Mugak gaintzea**, hau da, ohiko antzerki tradizionalaren mugak gaintzen ditu bere izaera dialogikoa eta diziplina-aniztasuna dela eta; pertsonari dituen mugak gaintzeko desafioa egiten dio «berria» dena taula gainean probatuz eta eguneroko bizitzara ekarriz.

·**Gatazka kultura**, hau da, jokaera eraikitzaileak, desberdinak eta bakezaleak sustatzen ditu krisi, gatazka eta norgehiagoketan (antolatuetan, analizatuetan eta bide kreatiboekin tratatutakoetan...).

·**Lan publikoa**, hau da, norberak bere eskaeren errepresentazio publiko, bizi eta adierazgarria egitea ahalbidetzen du; protesta, ikuspuntu, exigentzia, interes eta proposamenen artikulazio kreatiboa ahalbidetzen du, baina, publikoarekin elkarriketa bilatuz beti ere.

Talde-prozesu barnean, Antzerki-Forumaren teknika hainbat ariketa, joku eta dinamikez osatzen da, helburu desberdinak izanda ere elkarrekin erlazionatuta daudenak: norberak bere burua ezagutzea, zentzuak sentsibilizatzea, (auto)-pertzepzioa sendotzea, espazioa esperimentatzea, koordinazioa lantzea, taldeko integrazioa sustatzea, inprobisazioa garatzea, adierazpen ahalmenak handitzea (ahozkoa eta ahozkoa ez dena).

Arantzazu, 2007ko iraila